

6. KAPITULUA: LARRIALDIEI AURRE EGITEKO JARDUKETA-PLANA

Larrialdietako Jarduketa Planaren asmoa da giza baliabideen eta baliabide materialen antolamendua eta koordinazioa definitzea, sute batek edo beste edozein larrialdik eragindako larrialdi-egoera baten aurrean komunikazioa, ebakuazioa edo konfinamendua eta berehalako esku-hartzea errazteko, baldin eta arrisku horri aurre egiteko erabakiak eta jarduketak azkar, modu koordinatuan eta eraginkorrean hartu behar badira.

Hori guztia, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 20. artikulua betez. Horren arabera, enpresaburuak larrialdi-egoerak prebenitu behar ditu, lantokiaren tainaren eta jardueraren arabera ebaluatuta, bai eta horrekin zerikusirik ez duten pertsonak egon daitezkeela balioetsita ere. Ebaluazio horretan hiru jardun-eremu zehazten dira:

- Lehen sorospenen, suteen aurkako borrokaren eta pertsona guztien ebakuazioaren arloan beharrezkoak diren neurriak adostea.
- Aipatutako neurriak praktikan jarriko dituzten langileak izendatzea. Jarduketan espezifikotasuna dela eta, beharrezkoa den prestakuntza duten langileak izan beharko dira, kopuru nahikoan, eta material egokia izan beharko dute horiek.
- Beharrezkoak diren harremanak antolatzea enpresatik kanpoko zerbitzuekin; esaterako, osasun-esparrukoekin, garraiokoekin, poliziarekin edo suhiltzaileekin, eta komunikaziokoekin, betiere larrialdiak eskatzen duen dimentsioarekin.

Larrialdiaren barne-antolaketaren helburua ez da Kanpoko Zerbitzuak ordezkatzea, baizik eta berehalako erantzun bat ematea, zerbitzu horiek iritsi eta larrialdiaren ardura beren gain hartu arte.

6.1. Larrialdiak identifikatu eta sailkatzea

6.1.1 Arrisku motaren arabera

3. kapituluan, larrialdi-egoerak eragin ditzaketen arrisku motak aztertu eta ebaluatu dira. Horiek, era berean, jatorriaren arabera sailka daitezke:

- Arrisku naturalak: Jatorria fenomeno naturaletan dutenak dira (faktore geografikoak, klimatikoak, meteorologikoak, etab.). Arrisku mota horren jatorria kontuan hartuta, zentroaren kokalekuaren ezaugarri bereziek baldintzatzen dute kuantitatiboki arrisku mota horren presentzia.
- Arrisku antropikoak: Giza jardueraren ondorioz sortzen direnak.

- Arrisku mistoak: Kasu honetan, arrisku mota baten alterazioak edo intentsifikazioak dira, bestearen ekintzak edo interferentziak eragindakoak.

6.1.2.- Larritasunaren arabera

Larritasunaren arabera –kontrolatzeko zailtasunen eta izan ditzaketen ondorioen arabera–, larrialdiak izan daitezke:

LARRIALDI-HASIERA
Egoera hori, hasi berria dagoenez, erraz eta azkar kontrolatu eta menperatu dezakete instalazioko langileek beraiek, instalazioko bertako, eremuko edo sektoreko babes-bitartekoak erabiliz.
Larrialdi horren ondorioak ez dira hura gertatu den sektoretik harago pasatuko, eta ez diete mugakide diren beste sektore eta/edo eraikin batzuei eragingo, ez eta beste pertsona batzuei ere.
Instalazioetan dauden gainerako erabiltzaileek arazorik izan gabe eta horiek ebakuatu beharrik gabe konponduko da larrialdia.
LARRIALDI PARTZIALA
Egoera hori menderatzeko, larrialdietako talde bereziek esku hartu beharko dute.
Larrialdi horrek hura gertatu den sektoreari bakarrik eragingo dio, eta dio mugakide diren beste sektore eta/edo eraikin batzuei ez eta beste pertsona batzuei ere eragingo.
Gehienez ere, larrialdiaren eraginpeko bulegoa, eremua edo sektorea ebakuatu beharko da.
LARRIALDI OROKORRA
Larrialdi-mota honetan, zentroko babes-ekipo eta -bitarteko guztiak eta kanpoko laguntza-ekipoen esku-hartzea behar dira.
Larrialdi horren ondorioak ez dira hura gertatu den sektorera bakarrik mugatzen: mugakide diren beste sektore eta/edo eraikin batzuei eta hirugarren pertsonari ere eragiten die.
Sektore jakin batzuetako pertsonak ebakuatu edo konfinatu beharko dira; edo, beharrezkoa bada, instalazio guztia hustu edo konfinatu beharko da.

6.1.3 Okupazioaren eta giza baliabideen arabera

Zentroaren ezaugarriak direla eta, hainbat aldi bereizten dira, okupazioaren eta giza baliabideen arabera:

- Egunkoa, funtzionamendu-baldintza normaletan.
- Gauekoa, okupazioa txikiagoa edo nulua denean.
- Asteburuetan eta jaiegunetan, kirol-ekitaldiak direla-eta okupazio handiagoa denean. Aldi horretan, zentroak larrialdietarako aurreikusitako langile-kopururik handiena izango du.
- Oporretakoa. Langileen oporraldietan gertatzen den larrialdia. Aurrekoen tratamendu bera izango dute, eta larrialdietarako taldeetan ordezkapenak egitea aurreikusita egongo da- Ordezkapen horiek oporraldien aurretik ezarrita egongo dira.

6.2 Larrialdietan jarduteko prozedurak

Larrialdia izaten denean egin behar diren jarduerak osatzen dute Larrialdi Plana, eta planaren helburua da, istripu edo gorabeheraren bat gertatzen bada, alderdi hauek denak bermatzea:

- Istripu edo gorabeheraren bat izan dela detektatzea
- Alarma bidaltzea larrialdi-gailura
- Larrialdiari erantzutea (esku-hartzea)
- Ebakuazioa egitea, beharrezkoa bada.
- Kanpoko zerbitzuei abisua ematea (beharrezkoa bada, eta haiei harrera egitea)

Instalazioetan zerbait egiten ari den edozein pertsonak identifikatu dezake larrialdi-egoera bat eta atal honetan adierazitako eran jardun gero.

Jarraian, sua izanez gero jarraitu behar den prozedura azaldu dugu, osoena ere horixe dela uste baitugu.

6.2.1 Detektatzea eta alerta jotzea

Lehenengo urratsa sua detektatzea da. Pertsonak berek (langileek, kiroldegiko erabiltzaileek eta abar) edo detektagailu automatikoen antz ematen diote suari.

Kiroldegietan segurtasun handiagoa izateko, sistema bikoitza ezarri da detekzio- eta alarma-faserako.

1) Langileek eta erabiltzaileek sua detektatzea eta alerta jotzea.

Instalazioko langile edo erabiltzaile batek su-alarma bat detektatzen duenean, ahoz, telefonoz edo jarrita diren alarma-sakagailuen bidez jakinaraziko du hori.

Sakagailuren bat aktibatzen bada, alarma-zentralak haren seinalea jasotzen du eta, automatiko, kontratatutako segurtasun-enpresari abisua pasatzen dio.

Segurtasun-enpresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatuko du.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun-enpresak 112ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, ambulantiak eta abar).

2) Suari antzemateko bitartekoek (detektagailuek) detektatzen badute sua eta jotzen badute alerta:

Detektagailuren bat aktibatzen bada, alarma-zentralak haren seinalea jaso eta, automatiko, kontratatutako segurtasun-enpresari abisua ematen dio.

Segurtasun-enpresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatuko du. Alarma baieztatzen bada, segurtasun-enpresak 112ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, ambulantiak eta abar).

Bigarren urratsa da informazio hori Larrialdi Taldeari eta/edo Kiroldegiko langileei helaraztea. Bi transmisio-mota daude:

Mugatua: eremuko Larrialdi Taldeari bakarrik abisatzen zaionean.

Orokorra: kiroldegi osoa ohartarazten denean, eremu guztiak azkar ebakutzen hasteko. Alarma orokor hori larrialdietako buruak beste inork ere ez du aginduko.

b.1) Abisuak emango dituen pertsonaren identifikazioa

Ardura	Abisuak emango dituen pertsona
Kontrol-zentroa	Harrerako/atezaintzako langileak

b.2) Babes

Zibileko Larrialdiei Aurre Egiteko Koordinazio Zentroaren identifikazioa

Izena	BABES ZIBILA LARRIALDIAK 112 AUTONOMIA ERKIDEGOA
LARRIALDIETAKO telefonoa	112

6.2.3 Larrialdiari erantzuteko mekanismoak

Larrialdia desagerrarazteko gauza dela uste duen edozein langilek esku hartuko du. Nolanahi ere, Esku hartzeko Taldeari jakinarazi ondoren, larrialdia gertatu den tokira joan eta esku hartuko du hark ere, larrialdiari amaiera emateko. Esku-hartze burua izango da talde horren burua.

6.2.4 Ebakuazioa eta/edo konfinamendua

Sua itzaltzea lortzen ez bada, Larrialdi Taldeak erabakiko du kiroldegi guztia edo parte bat ebakatu behar den.

Informazio hori kiroldegian diren pertsona guztiei helaraziko zaie, eta

Alarma eta Ebakuazio Taldeak ebakuazioa ahalik eta seguruena eta azkarrena izaten lagunduko du, pertsona guztiak zehaztutako Elkargunerantz bideratuta.

todo el personal hacia el Punto de Reunión establecido.

6.2.5 Lehen sorospenak ematea

Larrialdietako buruak hala aginduta, Kontrol Zentroak kanpoko laguntzei deituko die, hala behar izanez gero.

Lehen esan dugun bezala, esleituta den Larrialdi Taldeak emango ditu larrialdietako lehenbiziko sorospenak. Talde horretako kideak laguntza horiek emateko gauza direla uste badute bakarrik emango dira, eta arrisku handirik hartu gabe, betiere.

Kanpoko Laguntza iristen denean, hura izango da egin behar diren jarduketak egingo dituen.


6.2.6 Kanpoko laguntzak jasotzeko moduak

Larrialdietan, Larrialdietako buruaren lanlekua Kontrol Zentroan izango da. Larrialdietako burua izango da kanpoko laguntzei harrera egingo diena, eta haiei larrialdia den eremuaren plano bat eman eta gauza hauek denak jakinaraziko dizkiena: istripua zein tokitan izan den eta Kontrol Zentrotik hara zer ibilbide egin behar duten (planoan adierazita), istripua izan den tokiak zer ezaugarri dituen (ezagutzen direnak), istripua izan den tokiaren inguruan dauden arriskuak, ebakuazioan izandako gorabeherak eta, izan baldin bada, zauriturik eta/edo harrapatuta geratu denik den.

6.3 Larrialdietan jarduteko prozedurak aurrera eramango dituzten pertsonak eta taldeak identifikatzea, bai eta haiek izango dituzten eginkizunak ere

Larrialdietako taldeetan parte hartzen dutenak (horien banakapena Larrialdietarako Segurtasun Erakundearen organigrama orokorrean eta 4.1 atalean ageri da zehaztuta) honako hauek dira:

a) "Eguneroko" funtzionamendu normalerako organigrama



LARRIALDIETAKO BURUA: Larrialdietako burua hau da: Mikel Arteaga Mercader (Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko teknikaria)

1. ordezkoa: KUPeko kirol-guneko teknikaria.
2. ordezkoa: Guneko teknikariaren ordezkoa, KUPen ezarritakoaren arabera.


ESKU-HARTZE burua: Instalazioaren arduraduna izango da Esku-hartze burua.

1. ordezkoa: Arduraduna ez denean, esku hartzeko taldeko kide batek hartuko du bere gain Esku-hartze buruaren eginkizuna. (Eginkizun hori kontroleko langileek hartuko dute, telefonoa daukate eta)

ESKU HARTZEKO TALDEA: instalazioak mantentzeko eta kontrolatzeko langileek osatuko dute kiroldegian esku hartzeko taldea.

EBAKUAZIO TALDEA: Ebakuazio-taldea monitoreek eta lokaletako langileek osatzen dute. Jendea ebakutzen lagunduko dute haiek.

b) Ekitaldietarako organigrama



LARRIALDIETAKO BURUA: Larrialdietako burua hau da: Mikel Arteaga Mercader (Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko teknikaria)

1. ordezkoa: KUPeko kirol-guneko teknikaria.
2. ordezkoa: Guneko teknikariaren ordezkoa, KUPen ezarritakoaren arabera.

ESKU-HARTZE burua: Ekitaldiaren arduraduna izango da Esku-hartze burua.

1. ordezkoa: Ekitaldiaren arduraduna ez denean, esku hartzeko taldeko kide batek hartuko du bere gain esku-hartze buruaren eginkizuna.

ESKU HARTZEKO ETA EBAKUATZEKO TALDEA: instalazioan antolatutako ekitaldietan esku hartzeko eta ebakuatzeko taldea ekitaldiaren segurtasunerako kontratatutako segurtasun-enpresako langileena izango da.

Hauek dira larrialdiren bat izandakoan betebeharrak zehatz batzuk dituzten pertsonen jarduketak-fitxak.

Pertsona bakoitzak bere lanpostuan eduki behar du fitxa, edozein unetan aztertu eta, larrialdiren bat izandakoan, zuzen jardun ahal izateko.

Ekitaldi bakoitzak izendatuta izan behar ditu bai Esku-hartze/Ebakuazio Taldean izango diren pertsonak, bai eta Esku-hartze burua ere.

Donostia Kirola ez den beste erakunde batek antolatutako ekitaldia edo jarduera egin baino egun batzuk lehenago, antolatzaileak pertsona horien izendapena jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, EJRen "Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra" aplikazio informatikoaren bidez, txosten honen II. eranskinean jasotako inprimakia bete eta hura aurkeztuta. Era berean, Donostia Kirolera bidaliko du erregistro horren egiaztatzea.

6.3.1 SUA IZANEZ GERO NOLA JARDUN JAKITEKO FITXAK

Kiroldegietan segurtasun handiagoa izateko, sistema bikoitza ezarri da detekzio- eta alarma-faserako.

3) **Langileek eta erabiltzaileek sua detektatzea eta alerta jotzea.**

Instalazioko langile edo erabiltzaile batek su-alarma bat detektatzen duenean, ahoz, telefonoz edo jarrita diren alarma-sakagailuen bidez jakinaraziko du.

Sakagailuren bat aktibatzen bada, alarma-zentralak haren seinalea jasotzen du eta, automatikoki, kontratatutako segurtasun-entresari abisua pasatzen dio.

Segurtasun-entresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatuko du.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun-entresak 112ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, ambulantiak eta abar).

4) **Suari antzemateko bitartekoek (detektagailuek) detektatzea sua eta alerta:**

Detektagailuren bat aktibatzen bada, alarma-zentralak haren seinalea jaso eta, automatikoki, kontratatutako segurtasun-entresari abisua emango dio.

Segurtasun-entresak, instalaziora deitu eta alarma benetakoa den egiaztatuko du.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun-entresak 112ra deituko du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, ambulantiak eta abar).

Sua izanez gero nola jardun jakiteko fitxak:

KONTROL ZENTRALAREN (KZ) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Alarma jaso (langile batek emandakoa, sakagailuari emandakoa edo su-detektagailu bidezkoa)
Zer gertatzen den eta non gertatzen den jakin.
- 2) Esku Hartzeko Taldeari abisatu, gorabehera gertatu den lekura joan daitezten.
- 3) 112ra deitu, deitu behar dela iritiz gero, eta kanpoko laguntza eskatu.
- 4) Larrialdietako buruari abisatu.
- 5) Kanpoko zerbitzuak hartu, Kontrol Zentroan den Suhiltzaileen Dokumentazioa karpetarekin.
- 6) Larrialdietako buruaren aginduei jarraitu:
 - Ebakuazio-plana aktibatzea erabakitzen badu: alarma-taldeetako kideei deitu eta ebakuatu beharreko eremuak ebakuatu eta alarma-sirenak aktibatu.
- 7) Ezarrita duen elkartze-puntura ebakuatu.

LARRIALDIETAKO BURUAREN (LB) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ezbehar bat gertatu dela jakinarazten zaio.
- 2) Une oro telefonoz harremanetan egongo da esku-hartze buruarekin, ezbeharraren bilakaeraren berri eman diezaion.
- 3) Kanpoko laguntza eskatu behar den erabakiko du. Kontrol-zentroari agindu hori emango dio, hala badagokio.
- 4) Ebakuazio-plana aktibatu behar den erabakiko du. Kontrol-zentroari agindu hori emango dio, hala badagokio.
- 5) Larrialdiaren amaiera aginduko du. Kalteak ebaluatu, baldintza normalak berrezarri eta ezbeharraren txostena idatziko du, esku-hartzeko buruarekin batera.

ESKU HARTZEKO BURUAREN (EB) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ezbehar bat gertatu dela jakinarazten zaio.
- 2) Ezbeharraren lekura joango da berehala.
- 3) Une oro Larrialdietako buruarekin harremanetan egongo da telefonoz, istripuaren bilakaeraren berri emateko eta elkarrekin erabakiak hartzeko (esku-hartzeko taldeak indartzeko beharra, etab.).
- 4) Sutea itzaltzen saiatuko da, esku hartzeko taldearekin batera. Esku hartzeko taldearen ekintzak zuzenduko ditu.
- 5) Ezin badute sutea itzali, 112ra deitu eta larrialdietako buruari jakinaraziko dio ebakuazio-plana aktibatu behar dela.
- 6) Bere eremua ebakutzen lagunduko du, ebakuazio-taldearekin batera.
- 7) Bere eremua ebakuatu dela egiaztatu ondoren, elkargunera/bilgunera joango da.
- 8) Ebakuatutako eremuei buruzko informazioa idatziko du, alarma- eta ebakuazio-taldeen emandako informazioa, alegia. Elkargunear/bilgunear inor faltan den egiaztatuko du.
- 9) Kalteak ebaluatu, ohiko baldintzak berrezarri eta ezbeharraren txostena idatziko du, larrialdietako buruarekin batera.

ESKU HARTZEKO TALDEAREN (ET) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ezbehar bat gertatu dela jakinarazten zaio.
- 2) Ezbeharra gertatu den lekura joango da berehala, eta su-itzalgaillu bat hartuko du bidean.
- 3) Esku hartzeko taldeko kide batek kaltetutako eremuko energia eta gasa moztu beharko ditu, esku hartzeko buruaren agindupean.
- 4) Eskura dituzten baliabideekin (su-itzalgailluak) sua itzaltzen saiatuko dira.
- 5) Tentsioan dauden ekipoak itzaltzeko, ez da inoiz urik erabiliko.
- 6) Sutea itzaltzea lortzen ez badu, esku-hartze hori utzi egingo du.

ALARMA ETA EBAKUAZIO TALDEAREN (AET) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Ebakuazio-plana aktibatu izanaren abisua jasotzen du (Kontrol Zentroaren deia edo alarma-sirena soinua).
- 2) Esleitutako eremua ebakutzeko aginduko du, eta desgaitasuna duten pertsonen lagunduko die dagokien irteeraraino, beharrezkoa izanez gero.
- 3) Beren eremua erabat ebakuatu dela egiaztatuko du, eta bertako langileei ez die atzera egiten utziko.
- 4) Bere eremuaren ebakuazioa amaitzen denean, bertako ateak eta leihoak itxi (ahal bada) eta bertatik aterako da, zehaztuta duen elkargunera joateko.
- 5) Elkargunean, bere eremuaren ebakuazioaren berri emango du.

ERABILTZAILAEN ETA PUBLIKO OROKORRAREN SEGURTASUN-FITXA

1) Ezbeharren bat ikusiz gero:

- ✓ Berehala eman abisua instalazioko langileei edo aktibatu sakagailu bat.
- ✓ Alde egin azkar, baina korrika egin gabe. Ahal bada, itxi ateak eta leihoak. Ez egin inoiz atzera.
 - ✓ Lasai egon beti, korrika edo oihuka ibili gabe, izurik ez eragiteko.

2) Ebakutzeko agintzen badizute (ahoz edo alarma-sirenen bidez)

- ✓ Alde egin bizkor, baina korrika egin gabe, joan elkargunera
- ✓ Jarraitu beti langileen jarraibideak
- ✓ Ez egin inoiz atzera
- ✓ Ez bultzatu eta ez sortu jende-pilaketarik
- ✓ Elkartze-puntuan egon, larrialdietako buruak larrialdia amaitu dela zehaztu arte.

6.3.2 BONBA-MEHATXUA GERTATUZ GERO JARDUTEKO FITXAK

KONTROL ZENTRALAREN (KZ) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Bonba-mehatxu baten deia jasotzen badu, ahalik eta datu gehien bildu eta 112 zenbakira deitu beharko du.
- 2) Larrialdietako buruari jakinarazi beharko dio bonba-mehatxu bat egon dela.
- 3) Kanpoko zerbitzuen (Udaltzaingoa, Ertzaintza, etab.) aginduak beteko ditu.

- 4) Ebakuazio-plana aktibatzea erabakitzen badu: Eraikineko alarma-sirenak aktibatu (guztiak edo larrialdietako buruak erabakitzen dituenak) eta ebakuatu beharreko eremuetako ebakuazio-taldeetako kideei deituko die.
- 5) Larrialdi-buruarekin batera, ebakuatu eta elkargunera joango da.

LARRIALDIETAKO BURUAREN (LB) SEGURTASUN-FITXA

- 1) Bonba-mehatxu bat egon dela jakinarazten diote.
- 2) Une oro, telefonoz, esku hartzeko buruarekin harremanetan egongo da, larrialdiaren bilakaeraren berri eman diezaion.
- 3) Kanpoko zerbitzuen (Udaltzaingoa, Ertzaintza, etab.) aginduak beteko ditu.
- 4) Ebakuatutako eremuei buruzko informazioa idatziko du, ebakuazio-taldeek emandako informazioa, alegia.
- 5) Larrialdia amaitu dela erabakiko du. Kalteak ebaluatu, baldintza normalak berrezarri eta ezbeharraren txostena idatziko du, esku-hartzeko buruarekin batera.

ESKU HARTZEKO BURUAREN (EHB.), ESKU HARTZE TALDEAREN ETA ALARMA ETA EBAKUAZIO TALDEAREN (ET eta AET) SEGURTASUN FITXA

- 1) Ebakuazio-plana aktibatzeko abisua jasotzen du (kontrol-zentroaren deia, megafonia edo alarma-sirenen soinua).
- 2) Esleitutako eremua ebakuatzeko agindua emango du, ahoz eta eremuko megafoniaren bidez, baldin eta halakorik badago.
- 3) Bere eremua erabat ebakuatu dela egiaztatuko du eta ez die pertsoneri atzera egiten utziko.
- 4) Bere eremuaren ebakuazioa amaitzen denean, handik atera eta elkargunera joango da.
- 5) Bere eremuaren ebakuazioaren berri emango dio Larrialdietako buruari.

ERABILTZAILAILEEN ETA PUBLIKO OROKORRAREN SEGURTASUN-FITXA

1) Pakete susmagarri bat aurkitzen baduzu:

- ✓ Eraikineko langileei berehala abisatu.
- ✓ Alde egin azkar, baina korrika egin gabe. Ez egin inoiz atzera.
- ✓ Lasai egon beti, korrika edo oihuka ibili gabe, izurik ez eragiteko.

2) Ebakuatzeko agintzen badizute (ahoz edo alarma-sirenen bidez)

- ✓ Alde egin bizkor, baina korrika egin gabe, joan elkargunera.
- ✓ Jarraitu beti langileen jarraibideak.
- ✓ Ez egin inoiz atzera.
- ✓ Ez bultzatu eta ez sortu jende-pilaketarik.
- ✓ Elkartze-puntuan egon, Larrialdietako buruak larrialdia amaitu dela erabaki arte.

6.4 Larrialdiei aurre egiteko jarduketa-plana abian jartzeko arduradunaren identifikazioa

Larrialdiei aurre egiteko jarduketa-plana abian jartzeaz arduratuko den pertsona (edozein larrialditan jarduketak abian jartzeko arduraduna) larrialdietako burua izango da.

6.5 Elkargunea

Eraikinean dauden pertsonak, ebakuatu eta eraikinetik atera ostean, gune horretara joango dira.

Elkargunean, langileren bat falta den egiaztatuko du larrialdi-taldeak.

Elkargune bakarra zehaztu da kiroldegiko sarbidearen ondoan, eta eraikinean dauden pertsonak bertara joan beharko dute. Hala ere, puntu hori arriskutsua balitz, kaleko muturretako batera eramango dira ebakuatutako pertsonak, arrisku-lekutik urruntzeko. Hori egiteko orduan, ez da errepiderik zeharkatu behar.

Elkargune hori Planaren planoetan adierazita dago:

	<p>Elkargunea, kiroldegiko sarbidearen ondoan, Luis Martin Santos plazan.</p>  <p>Egoerak hala eskatzen badu, Larrialdietako buruak edo Kanpoko Laguntza Zerbitzuek beste kokapen bat ezarriko dute.</p>
---	--